

2. Koadernoia: Programaren garapena



[Peru]

Hiritarren parte-hartzea
tokiko garapena adosteko

Aurkezpena

Zabalketak eta Red Sur de Caritas del Peru erakundeak 20 urte baino gehiago daramatzate Andeetako nekazari-familiekin lanean. Tokiko garapen gizatiarra, bidezkoa eta iraunkorra sustatzen dute.

Urte hauetan aurrerapauso asko eman dira tokiko garapenean, baina garapen hori oztopatzen duten bi egoera identifikatu dira: alde batetik, herritarren parte-hartzea txikia da; eta bestetik, erakunde zibilen eta politikoen artean ez dago elkarrekin adostutako eta koordinatutako lankidetzakulturarik.

Horren ondorioz, udal mailan martxan jartzen diren proiektuek, askotan, ez diete erantzuten herritarren benetako beharrei; ezarritako planek ez dute segidarik izaten; eta gainera, eragin txikia izaten dute garapen-prozesuetan.

Zailtasun horiei aurre egiten laguntzeko eta parte-hartzea nahiz adostasuna hobetzen saiatzeko, hiru urteko iraupena izan duen programa bat garatu da. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak (Eusko Jaurlaritzak) lagundu du diruz.

Koaderno honek modu dibulgatzailean eta laburbilduta aurkezten ditu garatutako lan-estrategia nagusiak, eta lorpenak.

Peruko Andeetako udal-gobernuekin, gizarte-erakundeekin eta nekazari-komunitateekin egin da lan, baina, horrez gain, Euskadiko Lanbide Heziketako zentroekin lan egiteko aukera ere izan da, hain zuzen, Gizarte Integrazioa goi-mailako zikloko ikasle eta irakasleekin.

Sarrera

Programaren izenburua *Hiritarren parte-hartzea tokiko garapena adosteko* da, eta helburu zehatza, berriz, hau: udal-gobernuek nahiz gizarteak modu adostuan lan egitea parte-hartze, inklusio, ekitate eta iraunkortasun printzipioak kontuan hartuko dituen tokiko garapena lortzeko estrategiak martxan jartzeko.

Guztira hamahiru nekazari-komunitatetan eta zazpi Lanbide Heziketako zentrotan esku hartu da. Nekazari-komunitateak Cusco departamentuko Acopia, Sangara eta Checacupe barrutietakoak ziren, eta Lanbide Heziketako zentroak Araba, Bizkai zein Gipuzkoakoak.

Hiru urtean zehar, bost lan-lerro hauek garatu ditu programak:

1. lerroa- Udal-gobernuen kudeaketarako gaitasuna sendotzea

Estatu baten antolaketa-egituraren baitan, udal-gobernuak izaten dira normalean oinarrian dauden erakundeak, eta kontu publikoetan parte-hartzeko gizarteak duen hurbileneko bidea ere bai. Tokiko gobernuek autonomia kudeatzen dituzte beren baliabideak, tokiko komunikatearen askotariko beharrak asetzeko helburuarekin.





Hiru barrutitan garatu da programa, eta hiru barrutietako tokiko gobernuek dituzte zenbait ahulezia eta zailtasun beren funtzio publikoak zuzentasunez eta iraunkortasunez gauzatzeko. Horren arrazoi nagusia da ez dutela kudeaketa publikorako prestakuntzarik jaso. Hala, programako lehen lan-lerroa pertsona horien gobernatzeko gaitasuna sortzera eta hobetzera bideratu da.

Programak hiru barruti horietako hiru udaletako gobernu taldeekin eta funtzionarioekin egin du lan: hau da, Acopia, Sangarara eta Checacupekoekin. Helburua izan da gizarteko eragileen arteko elkarlana eta koordinazioa hobetuko duten politikak sortzea eta martxan jartzea. Era berean, nekazari-komunitateen etorkizunari eragiten dioten erabakigune publikoetan hiritarrek parte hartzeko aukera emango duten politikak sortu eta martxan jarri nahi izan dira.

Horretarako martxan jarri den estrategietako bat izan da kargu publikoak dituztenei nahiz funtzionarioei balore eta printzipio batzuen gaineko prestakuntza ematea, beren karguak eta erantzukizunak irizpide horiek kontuan hartuta bete ditzaten. Besteak beste, inklusioa, ekitatea, parte-hartzea eta kontsentsua izan dira landu diren printzipioetako batzuk. Horrez

gain, Peruko legediari buruzko trebakuntza ere eman zaie, zehazki lege hauen gainekoa: aukera-berdintasunerako, kontratazio publikoko eta ingurumenaren erabilera eta kontserbazioari buruzko legeena. Gatazkak konpontzeari, lidertza egokia burutzeari eta adimen emozionalari lotutako trebezia eta gaitasunetarako ere prestatu dira.

Prestakuntza horretatik abiatuta, pertsona horiei lagundu zaie irizpide eta gaitasun horiek beren eguneroko lanean sartzen; adibidez, barrutiko garapen-batzordeen bilereretan eta aurrekontu parte-hartzaileak osatzeko tailerretan. Horrez gain, erabiltzen dituzten kudeaketarako tresnetan ere sartzen dituzte irizpide horiek. Barrutiko garapen-planek, besteak beste, genero-berdintasunari, giza eskubideei eta iraunkortasun ekologikoari lotutako helburu zehatzak dituzte dagoeneko.

Gizarteko beste eragileekin ere sortu dira koordinazio-espazio berriak, adibidez, ekoizle-familien elkarteekin eta nekazari-komunitateetako zuzendaritza-batzodeekin. Bisitak, bilerak eta tailerrak antolatu dira horiekin, elkartzeko, elkar ezagutzeko, harremanak egiteko eta modu artikulatuan lan egin ahal izateko.

Tokiko gobernuetan lan egiten dutenek beste udal batzuetara joateko aukera izan dute, herri mailan adostutako kudeaketa-kasu arrakastatsuen esperientziak zuzenean ezagutzeko. Bidaia horietan, zenbait praktika on identifikatzeko aukera izan dute, eta horiek beren errealitate propioa ekarri eta egokitu dituzte.

Horrez gain, udal-informazioaren gardentasunari laguntzen dioten komunikazio-estrategiak sortu eta martxan jarri dira. Hala, udalak zertan ari diren jakiteko aukera dute hiritarrek, eta aldi berean, agintarien eta herritar guztien arteko harremana eta konfiantza hobetzen dira. Hauek dira erabilitako estrategietako batzuk: irrati-kanpainak egitea, telebistan iragarkiak jartzea, webguneak sortzea eta maketak eta informazio-muralak sortzea.

Horrekin batera, gizarte-zaintzarako batzordeetako kideen prestakuntza hobetu da, udalen lanaren gaineko jarraipen eta ikuskapen hobea egiteko aukera izan dezaten. Prestakuntza horretan, besteak beste, batzorde horiek bete beharreko funtzioak zein diren aztertu da; zein diren batzordeak arautzen dituzten arau eta legeak ikusi da; eta tokiko garapenarekin, hiritarren parte-hartzearekin eta gardentasunarekin lotutako zenbait gai jorratu dira.

1. taula: politikariak eta funtzionarioak hiru barrutietan sexuaren arabera.				
Barrutia	Mota	Gizonezkoak	Emakumeak	Guztira
Acopía	Alkatea	1		1
	Zinegotzia/ak	4	1	5
	Funtzionarioak	20	8	28
Sangarará	Alkatea	1		1
	Zinegotzia/ak	3	2	5
	Funtzionarioak	15	7	22
Checacupe	Alkatea	1		1
	Zinegotzia/ak	4	1	5
	Funtzionarioak	43	22	65
Denetara		92	41	133

2. lerroa- Antolatutako gizarte zibilaren gaitasunak sendotzea genero-berdintasunean parte-hartzeko eta adosteko

Lana gauzatu den Peruko Andeatako gunen horretan, gizartearen garrantzia handia duten zenbait erakunde daude, eta horiek kontuan hartu behar dira tokiko garapen-plan bat osatzerakoan eta martxan jartzerakoan.

Alde batetik, **nekazari-komunitateak** daude, quechua kulturako erakunde propioak. Zuzendaritza-batzordeek zuzentzen dituzte horiek, eta zazpi pertsonakoak izaten dira batzordeak (lehendakaria, lehendakariordea, idazkaria, diruzaina eta batzordekideak). Era berean, batzorde espezializatutako antolatzen dira (ura, lurrak, abereak eta abar). Hilero egiten dituzte batzarrik,



Sangararako barrutiako garapen plana eguneratzeko lekuko diagnosi lantegia

komunitateari eragiten dioten garrantzizko kontuak lantzeko, kontsultatzeko, haiei buruz eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko: esate baterako, asaldura eragin duen konturen bat egon bada, auzokoen kexuren bat baldin badago edo zuzendaritza-batzordearen lanen eta kudeaketaren berri emateko. Batzarretan baliabide naturalen kudeaketarekin eta administrazioarekin zerikusia duten kontuak ere lantzen dira: ura, basoak, urmaelak eta abar. 18 urtetik gorako gizonezkoek hartzen dute parte, haiek hartzen baitira “etxe nagusitzat”. Emakumeen kasuan, alargunek eta ama ezkongabeek bakarrik hartzen dute parte.



Gizon eta emakumeek herriko garapen planen eguneratze lanetan parte hartzen dute

2 taula: Zer komunitatetan lan egin den eta 18 urtetik gorako erroladutako pertsonak sexuaren arabera.

Barrutia	Komunitatea	Erroladatuak		
		Gizonezkoak	Emakumeak	Guztira
Acopía	Acopía	270	259	529
	Santo Domingo	163	187	350
	Tactabamba	69	85	154
Sangarará	Sangarará	SD.	SD.	481
	Marcaconga	223	229	452
	Unión Chahuay	57	5	(*) 62
	Yanampampa	68	67	135
Checacupe	Occobamba Norte	29	27	56
	Occobamba Sur	38	36	74
	Cangalli	93	32	125
	Llocllora	106	121	227
	Chari	SD.	SD.	234
	Palccoyo	SD.	SD.	180
Denetara	13	1.116	1.048	3.059
Ehunekoa		52%	48%	100%

Iturria: Elkarhizketak eta errolda.

D.G...: Daturik Gabe

(*) Komunero titullarrak.

Zenbait ahulezia identifikatu dira nekazari-komunitateetan ardura-karguak betetzen dituztenen eta erabakiak hartzen dituztenen artean. Hauek dira horietako batzuk: lidergorako gaitasun ahula, herri-kudeaketari buruzko ezagutza urriak eta epe luzerako planifikazio-tresnarik ez erabiltzea. Gizarte- eta ekonomia-egoeraren ondorioz, ez dute prestatzeko aukerarik eta kargua behar bezala betetzeko gaitasunak garatzeko aukerarik izan, eta hortik datoz ahuleziak. Gainera, zuzendaritza-karguak betetzen dituztenen artean aldaketa asko egoten dira, eta hiri handietara edo beste herrialde batzuetara joaten direnak ere asko dira, batez ere gazteen artean. Programako estrategien eta jardueren bidez, ahulezia horiek arindu nahi izan dira.

Egin den lehen ekintzetako bat zuzendaritza-batzordeetako eta batzorde espezializatuetoako kideei zuzendutako prestakuntza-ikastaro bat egitea izan da. Parte hartu duen komunitate bakoitzean, zortzi gaitasun-modulu garatu dira, eta besteak beste, gai

hauek landu dira: lidergoa, genero-berdintasuna, komunikazioa, planifikazio estrategikoa, Nekazari Komunitateen Lege Orokorra, hiritarren parte-hartzea, etika eta gobernu ona, gatazken ebazpena eta uraren kudeaketa.

Prestakuntza horiei esker, herri-garapenerako plan berrietan genero-berdintasunari eta emakumearen parte-hartze ekonomiko, sozial eta politikoari lotutako helburu eta proiektu zehatzak sartzea lortu da. Gainera, hamahiru komunitateek aurkeztu dizkiote zenbait proiektu gobernuari, eta haietako bakoitzean emakumeen eskaera espezifikoaren arretarako proiektu bat zegoen gutxienez.

Natura- eta ekoizpen-baliabideen kudeaketa iraunkorrerako proposamenak ere landu dira, eta gizonezkoek nahiz emakumeek hartu dute parte haietan. Proposamen horien artean hauek nabarmenduko ditugu: ura biltegitratzeko azpiegiturak eraikitzea, lurren higadura gutxitzeko berriz basoak sartzea eta teknifikatutako urreztatzea ezartzea ura hobeto aprobetxatzeko.

Estatutu komunalak eta barne-araudiak eguneratu egin dira, eta ondorioz, emakumeek, gazteek eta desgaitasunen bat dutenek ere parte hartzen dute batzarretan orain.

Nekazari-komunitateek udal-gobernuekin batera adostasun-espazioetan parte hartzea lortu da, eta barrutietan nahiz barrutien artean topaketak egin dira herri-agintariekin eta batzorde espezializatuetao liderrekin. Hala, elkar ezagutzeko aukera izan dute; praktika egokiak partekatu dituzte; eta elkarrekin lan egiteko akordioak eta konpromisoak martxan jarri dituzte.

Horretarako, lan-metodologia dinamikoak eta parte-hartzaileak erabili dira, eta talde txikietan lan egin da. Hala, norbere ezagutzak, bizipenak eta gertuko errealitateak partekatuz, norbera ezagutzak handitzea lortu da. Prestakuntza horretan elkarrekin parte hartu dute gizonek nahiz emakumeek, eta proportzioa hau izan da: %60 gizonak eta %40 emakumeak.

Peruko gune horretan, nekazari-komunitateez gain, bestelako erakundeak ere badaude: **oinarriko gizarte-erakundeak** esaten zaie, eta haiekin ere egin da trebakuntza- eta sendotze-lana. Erakunde horiek batik bat ekoizle-familiek, emakumeek eta artisautzan aritzen direnak osatzen dituzte. Guztira, hiru barrutietako bederatzi erakunderekin lan egin da.

3. taula: oinarriko gizarte-erakundeak hiru barrutietan.

Barrutia	Erakundearen izena
Sangarará	Asociación de Artesanos "Munay Ñusta"
	Red de criadoras de cuy
	Asociación de personas con habilidades diferentes "Fuerza y Unión"
Acopía	Organizaciones de mujeres FEMUAC
	Organización de personas con discapacidad San Roque
	Red de productores de cuyes 4 Lagunas
Checacupe	Red central de criadores de cuyes
	Organizaciones de Base de mujeres de las comunidades de Checacupe
	Federación de mujeres de Checacupe



Emakumeek lidertza lantegi batean parte hartzen



Checacupe barrutiako emakume liderrek, herritarrek sentsibilizatzen emakumeen eskubideen alde

Nekazaritza-komunitateetako zuzendaritza-batzordeetako eta batzorde espezializatueta pertsonen gertatzen zaien gauza bera gertatzen zaie oinarriko gizarte-erakundeetako pertsonen: kudeaketari, parte-hartzeari, adostasunari eta ekitateari buruzko ezagutza eta gaitasun mugatuak dituzte. Ahulezia horiei bestelako zailtasun batzuk gaineratu behar zaizkie: esaterako, barne-koordinaziorako eta beste erakundeekin koordinatzeko zailtasunak eta etorkizunari begiratzeko eta hura planifikatzeko gaitasun mugatua.

Egindako jardueretako bat izan da erakundeetako barne-kudeaketa gaitan prestatzea, eta horretarako, kudeaketa hori arautzen duten gaur egungo legeak aztertu dira eta haiei buruz hausnartu da; esaterako, Nekazari Komunitateen Legea landu da. Horrez gain, zenbait tresna garrantzitsu sortzen eta kudeatzen ikasi da, esaterako, planifikazio estrategikoa, parte-hartzearen bidez eta genero-ikuspegiarekin sortua. Horrekin batera, besteak beste, lidergoari, komunikazio-gaitasunari, autoestimuari, generoari,

gatazkak ebazteari eta proiektuak sortzeari buruzko tailerrak egin dira.

Lan horri guztiari esker, honako lorpen hauek izan dira: erakunde horiek hobeto maneiatzea eta erabiltzea beren kudeaketa-tresnak; barne-osaera eta parte-hartzea bidezkoagoak izatea; aurrekontu parte-hartzaileen deialdira gizarte- eta ekoizpen-proiektu sendoagoak eta bideragarriagoak aurkeztea; eta erakunde horiek orain adostasun-espazioetan eta erabakiguneetan egotea eta horietan parte hartzea udal-gobernuekin batera.

3. lerroa- Gizon-emakumeen eta liderren ahalduntzea beren komunitate eta barrutien garapenean parte-hartze aktiboa eta bidezkoa izateko

Landa-komunitate horietako gizon-emakumeek zenbait ahulezia eta zailtasun dituzte gune publikoetan parte hartzeko eta beren iritzia, behar eta eskaerak adierazteko.



Komunitate ezberdinetako gizonen parte hartze soziala sustatzeko lantegi batean

Horren arrazoiak hauek dira: hezkuntza-maila baxua, autoestimu baxua eta beren buruarekiko segurtasun falta. Egoera hori are nabarmenagoa da emakumeen artean; izan ere, marjinazio- eta indarkeria-egoerak bizi izan dituzte, eta botere-harremanetan aldeak daude gizonen eta emakumeen artean.

Emakumeak nahiz gizonak ahalduntzeko eta haiek beren komunitateen garapenean parte-hartze aktiboa izateko asmoz, lan espezifikoak egin da: emakumeekin bakarrik, gizonekin bakarrik eta emakumeekin eta gizonekin batera.

Parte hartu duten hamahiru komunitateetan tailerrak egin dira emakumeekin, autoestimua lantzeko, parte-hartzea sustatzeko eta zein eskubideren jabe diren ezagutzeko. Gainera, hiru barrutietan emakumeen topaketak egin dira. Helburua elkarriketarako eta esperientziak partekatzeko espazio bat sortzea izan da, eta nekazari-komunitateetan eta tokiko gobernuetan eragin politikoa izatea.

Gizonekin maskulinitate berriei, genero-berdintasunari, autoestimuari eta hiritarren eskubide eta baloreei

buruzko tailerrak egin dira, emakumeen parte-hartze politikoa errazteari begira.

Emakumeekin eta gizonekin batera egindako lanari dagokionez, alde batetik, Liderren Eskola jarri da martxan, eta han, besteak beste, gai hauei buruzko prestakuntza jaso dute: hiritarren parte-hartzea, lidergoa, adostaduna, taldeen kudeaketa eta garapenerako proiektuen lanketa. Prestakuntza jaso ostean, beren proposamenak prestatzen eta udal-gobernuei aurkezten lagundu zaie. Gainera, Peruko beste toki batzuetara bidaiatu dute tokiko lidergo komunitarioari buruzko esperientzia arrakastatsuak ezagutzeko.

Gizon-emakumeekin lan egiteaz gain, zenbait sentibilizazio-kanpaina jarri dira martxan, irratietako iragarkien bidez, topaketak antolatuz eta esperientziak partekatuz. Jorratutako gaien artean, besteak beste, hauek daude: genero-berdintasunean parte hartzeko eskubidearen hedapena; etxeko rolen esleipena eta zaintzak; eta indarkeria-mota guztien eta emakumeen aurkako diskriminazioaren desagertzea.

Lorpen nagusietako bat barruti mailako generoaren mahai teknikoak osatzea izan da. Tokiko hainbat eragilek parte hartzen dute horietan, eta arlo ezberdinetan dauden genero-arrakalak murriztea da helburua: politikan, lan-arloan, etxean, hezkuntzan eta abar daudenak.

Programa horri esker, emakumeek beren hiritarizaera aintzatesten dute orain, eta beraz, beren komunitateetako eta barrutietako bizitza sozial eta politikoan parte hartzeko eskubidea dutela ohartzen dira. Hain zuzen, Liderren Eskolan ikasi duten emakumeek lehen ez zituzten karguak betetzen dituzte orain komunitateetan eta erakundeetan.

Bestalde, emakumeen eskubide- eta aukera-berdintasun hori aintzatesten dute gizonezkoek, eta modu positiboan baloratzen dute komunitateko eta barrutiko adostasun-espazioetan eta erabakiguneetan haiek duten presentzia eta parte-hartzea. Hori posible egiteko, etxeko lanen eta seme-alaben zaintzaren parte bat erantzunkidetasunez hartzen hasi dira.

4. Ierroa- Udal-gobernuen eta gizarte zibilaren gaitasunak sendotzea lurraldeko garapen iraunkorra berrmatuko duten estrategiak definitzeko eta martxan jartzeko

Andeetako gune horretan, klima-aldaketaren ondorioak igartzen ari dira dagoeneko; besteak beste, ur-iturri batzuk desagertu dira, tartean, mendilerroko glaziarrek eta arroa batzuetako zenbait iturburu. Horrez gain, klimari lotutako muturreko gertaera batzuk ari dira izaten: txingor-zaparradak, uda-hondarrak eta izozteak, adibidez.

Komunitate horietako biztanleen %90 nekazaritza eta abeltzaintzatik bizi dira, eta ekonomia-jarduera horiek natura-baliabideen (lurra eta ura) eta klimaren portaeraren mende daude guztiz.

Batez ere ureztatzeko ur-ekasia ari zaio gune horretako nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerari kalte egiten. Horren ondorioz, fruta- eta barazki-

laboreen errendimendua murrizten ari da, eta animalientzako bazkan ere igartzen da egoera.

Hori ikusita, beharrezkoa da egoerari buelta emateko eta klima-aldaketara egokitzeko neurriak hartzea. Proiektu honetan horretara bideratutako zenbait jarduera egin dira. Lehenik eta behin, diagnosi bat egin da hiru barrutietan, eta informazio hau bildu da: dauden iturri hidrikoak, eskuragarri dauden ureztatze-azpiegiturak, klima-aldagaiak, landare-estaldura posiblea erabilgarritasun hidrikoarekin eta erabilgarritasun eta eskaera hidrikoaren arteko lotura.

Ondoren, gobernuetako agintariei eta udaletako funtzionarioei zuzendutako zenbait sentsibilizazio-tailer egin dira, eta hiru barrutien artean guneko baliabide hidrikoen kudeaketa iraunkorrerako ekintza bateratuak egiteko premia dagoela nabarmendu da.

Herri-agintariekin eta liderrekin natura-baliabideak mantentzeko eta kudeatzeko buruzko gaitasun-ikastaroa egin da, eta nekazaritza eta abeltzaintzako praktika iraunkorrak ere landu dira. Besteak beste, hauek izan



Emakumeak eta gizonak bertako landareekin basoberritze kanpainan



Ureztatze eremuei lehenasuna emateko maketak eraikitzen

dira ikastaroan jorratu diren gaietako batzuk: lurraren higadura, produktu agrokimikoak erabiltzearen arriskua, paisaiaren zainketa eta planifikazio- eta ebaluazio-tresnak genero-ikuspegiarekin erabiltzea.

Nekazari- eta abeltzain-familekin trebakuntzarako zenbait tailer teoriko eta praktiko egin dira, besteak beste, hauei buruzkoak: larre eta bazken laborantza ganadua elikatzeak; akurien hazkuntza hobetzea; eta guneko geografia- eta klima-baldintzetara hobeto egokitzen diren alpapa-hazien landaketa. Prestakuntza hori emateaz gain, jarraipen bat egin zaie familiei, ikasitakoa ondo aplikatzen dutela bermatzeko.

Horrez gain, nekazaritza- eta abeltzaintza-feriak antolatu dira herri mailan nahiz barruti mailan. Produktuen salmentak bultzatzea, hornitzaileen eta erosleen arteko harremanak finkatzea, produktu

berriak aurkezteko aukera ematea eta ekoizle-familia ekintzaileak saritzea izan dira helburuak.

Lan horri guztiari esker, zenbait neurri eta ekintza zehatz jarri dira, eta aldaketa kualitatibo bat eman da herritarrek ingurumenaren gainean zuten kontzientzia eta natura-baliabideak erabiltzeko moduan; horri esker, herritarren nekazaritzako eta abeltzaintzako praktikak errespetuzkoagoak dira orain, eta naturarekin gehiago bat egiten dute. Aldaketen artean, nabarmentzekoa da erabiltzen den ur-kantitatea murriztu egin dela eta orain modu arduratsuagoan kontsumitzen dela, eta horrez gain, norbere ongarri organikoa prestatzen eta erabiltzen dutela orain.

Aldaketa horiek araudian ere islatu dira; izan ere, udal-gobernuek natura-baliabideak (ura, lurrak, basoak eta hondakinen maneia) hobeto mantentzeko, zaintzeko

eta aprobetxatzeko zenbait ondenantza prestatu dituzte, herrirako eta barrutirako.

5. Ierroa- Iparraldeko eta Hegoaldeko ikasleek hiritar-kontzientzia hartzen dute parte-hartzeko eta adosteko, eta tokiko garapen inklusibo, bidezko eta iraunkorrerako proposamenak aurkezten eta partekatzen dituzte

Tokiko garapena elkarrekin eraiki ahal izateko hiritarren parte-hartzea sustatzeko lan honetan, Peruko erabakiguneetan bereziki presentzia txikia zuten bi gizarte talde identifikatu ziren: alde batetik, emakumeen kolektiboa, eta bestetik, gazteena.

Bizitzako zenbait eremutan emakumeen parte-hartzea hobetu ahal izateko egindako jardueren eta lorpenen berri eman da aurreko lau lan-lerroetan. Bosgarren lan-lerro honetan, Peruko gazteekin espezifikoki gauzatutako esku-hartzeen berri emango dugu, eta Euskadiko gazteekin egindako esku-hartzeen berri ere bai.

Komunitate horietako gazteekin lan egiteko aukera eman du programa honek. Helburua izan da tokiko gobernuek haien interesen eta premien berri izatea eta interes eta premia horiei erantzutea. Euskadiko gazteekin ere egin da lan, alde batetik, Andeetako gune horretan bizi duten errealitatearen berri izan dezaten; eta bestetik, gazte horien parte-hartzea eta mobilizazioa sustatu dira, gehien interesatzen zaizkien gaien edo kezka handiena eragiten dieten gaien alde egin dezaten gertuko eremuetan.

Horrekin guztiarekin, helburu hauek lortu nahi dira: gazteek beren lidertzarako gaitasuna eta hiritar-kontzientzia garatzea; munduko eskubideen errespetuaren gaineko konpromisoa hartzea ardurak hartuz beren gain; eta gai izatea tokian bertan nahiz mundu mailan garapen integral eta iraunkorrari lagunduko dioten ekintza bideragarriak proposatzeko.

Hezkuntza-zentroetan gauzatu da lana, eta parte hartu duten ikasleen soslaia hau izan da: Perun, Bigarren Hezkuntzako kurtso ezberdinetako neska-mutilek

hartu dute parte; eta Euskadin, Gizarte Integrazioa goi-mailako heziketa-zikloko 1. ikasturteko ikasleek.

Perun, Bigarren Hezkuntzako 60 gaztek hartu dute parte, eta horietatik %60 neskak ziren eta %40 mutilak. Euskadin, berriz, Lanbide Heziketako 380 ikaslek hartu dute parte bi ikasturtetan zehar, eta horietatik %75 emakumeak eta %25 gizonezkoak izan dira.

Peruko ikasleek ikerketa txiki bat egin dute parte hartu duen eskola bakoitzean, hezkuntza-eremuan modu zuzenean eragiten dieten arazo eta premia garrantzitsuenak zein diren identifikatzen saiatzeko. Azterketa horren ostean, hauek izan dira aukeratutako gaiak:

- Ingurumenaren zaintza eta babesa: kutsadura eta gune berdeen hedapena
- Lehen sorospenak eta natura-hondamendien arriskuen gaineko prebentzioa
- Ikasle mutilen eta nesken artean bidezko harreman inklusiboak
- Hezkuntza-zentroetako jolaserako eta kirolerako espazioen bidezko gozamena

Gai horiek modu askotara eta modu zabalean landu dira: prestakuntza-tailerren bidez; hezkuntza zentroan bertan nahiz kanpoan egindako sentsibilizazio-kanpainen bidez; gurasoekin antolatutako bileren bidez; ekoizle-familien elkarteek antolatutako ekitaldietan parte-hartuz; eta arlo politikoa, barrutiko garapen-batzordeetan aurkeztuz eskaerak, kontuan har daitezen eta beharrezko aurrekontuak izan ditzaten.

4 taula: hezkuntza-zentroak Perun barrutiaren eta titulartasunaren arabera

Ikastetxearen izena	Barrutia
Miguel Ángel Hurtado Delgado	Acopia
Sagrado Corazón de Jesús	
Almirante Miguel Grau	Checacupe
Libertadores de América	Sangarara
Laguna Azul	

5 taula: Hezkuntza-zentroak probintziaren, herriaren, titulartasunaren eta hizkuntza-ereduaren arabera

	Ikastetxearen izena	Probintzia	Udalerri
1	EGIBIDE	Álava	Vitoria-Gasteiz
2	FRANCISCO DE VITORIA	Álava	Vitoria-Gasteiz
3	CRUZ ROJA	Bizkaia	Bilbao
4	TARTANGA	Bizkaia	Erandio
5	SAN JOSÉ DE CALASANZ	Bizkaia	Santurtzi
6	MARIAREN LAGUNDIA	Gipuzkoa	Bergara
7	INMAKULADA	Gipuzkoa	Tolosa

Euskadiko ikasleek, berriz, zenbait hezkuntza-baliabideren bidez, komunitate horiek bizi duten egoera ezagutzeko eta egoera horretara gerturatzeko aukera izan dute. Horri esker, parte-harteari, berdintasunari eta ingurumenari lotutako arazoek tokian-tokian nahiz maila globalean duten eraginari buruzko kontzientzia hartu ahal izan dute. Pentsamendu kritikoari eta elkartasunari, gizarte-justiziari eta ardurari lotutako balioak sendotu dituzte.

Arazo propioen eta gertuko beharren gainean ere egin dute lan Euskadiko ikasleek. Aukeratu zituzten gaiak hauek izan dira: genero-indarkeria eta euskal gazteen artean mentalitate eta jarrera matxistek izan duten gorakada. Horretarako, zenbait dinamika eta hezkuntzan erabiltzeko materiala prestatu dituzte. Hezkuntza-zentroan bertan, beste prestakuntza-ziklo batzuk ikasten ari diren ikasleekin landu dute material hori.



Peru eta Euskadiko ikasleek beraien bertako proposamenak partekatzen dituzte Skype bidez

Peru eta Euskadin aparte egindako lan horretaz gain, hango eta hemengo hezkuntza-zentroek elkarrekin lan bat egiteko aukera ere izan dute, Skype bidez: Peruko ikasleek Euskadiko ikasleek aukeraratuko gaia eta lan-proposamena berrikusi dituzte, eta beren iradokizunak eta gomendioak helarazi dizkiete, eta alderantziz. Hala, bakoitzaren proposamenari hobekuntzak proposatu eta ikuspegi ezberdinak erantsi zaizkio.

Programa honek aukera eman du tokiko garapen-eredu berri bat eraikitzeko, pauso berriak emateko, eta espazioetan herritar guztiek parte hartu behar dutela nabarmendu da, berdintasunez, hitz eginez eta etorkizuneko ikuspegiarekin.